


Ermuko etorkizuneko futbolariak

Maila bikainean ari dira Ermuko 5 gazte Jubenil mailako futbol txapelketan. Guztiek 17-19 urte inguru dituzte eta Eibar eta Athletic taldean ari dira. Estatuko Jubeniletako maila gorenean, ohorezko mailan, ari dira 3, eta beste 2 Euskal Herriko maila gorenean.

Haritz Korpa-k 18 urte ditu. Oso gazte zela Ermuko pilota taldean aritzen, baina 10 urte zituela Eibarko futbol taldera joateko eskaintza jaso zuen. Geroztik han aritu da "eta oso gustora" ari dela onartzen du. Lana eta futbolak betetzen dizkio eguneko ordu gehienak. Erdilari gisa hasi arren, gaur egun aurrelari gisa jokatzen du. Ohorezko mailan ari den taldeko golegile nagusia da egun. Talde berean ari da Gorka Campos ere,

atzelari gisa. 10 urterekin etorri zen Eibarko taldera Haritz bezalaxe. Asteazken, Gasteizen bizi da magisteritzako ikasketak egiten ari baita bertan. "Entrenamenduak ere han egiten ditut, ostegunetan izan ezik", gaineratzen du. Ohorezko mailan ari den hirugarrena, Mikel Arribas da. Hau ordea, Athletic taldean ari da. Duela bi urte eskaini zioten Ermuko taldea utzi eta Lezama aldera joatea. Atezaina da eta entrenatzaile gisa Julen Gerrero futbolari ohia dauka. "Pertsona jatorra da eta ondo konpontzen gara", aitortzen du. Ia egunero joaten da Lezamara eta ondorioz ikasketak ere erdi utzita dauka. "Sakrifizio asko eskatzen du honek", gaineratzen du baina gustora halerre. Etxeko babesik ez zaio falta.

Ohorezko mailako taldeaz gain, bada Eibarren Euskal Herri mailan ari den jubenil mailako beste talde bat ere.




Bertan ari dira gainontzeko beste biak, Mikel Gomez eta Mikel Idigoras. 19 urte beteko dituzte laister eta 10 urte zituztenetik aritu dira Eibarko talde ezberdinetan. Mikel Idigoras atezain aritu izan da betidanik. "Hainbat urteren ostean, nekatua eta lagatzeko asmoa dut", onartzen du. Aurten ez ditu neurketa asko jokatu nahiz eta ohorezko mailako taldearekin ere entrenamenduak burutu izan dituen. Azkenik, Mikel Gomez dugu. Honek

erdilari gisa jokatu ohi du. Pozik da egindako denboraldiarekin nahiz eta taldea sailkapenaren azken postuetan murgilduta dagoen.

Denboraldi amaiera ere laister dute. Uztailean hasi eta maiatz bitartean makina bat entrenamendu, partidu eta sakrifiziok laister dute amaiera. Dena den, denek onartzen dute "futbolearen aitzia izan dutela ametsa" eta bitartean lanean gogor jarraitzeko asmoa dutela.

Asier Ibaibarriaga



DERMOESTETIKA ZENTRO INTEGRALA

PILAR

ESTETIKA MIXTO ESPEZIALIZATUA
KIROMASAJEA, MEDIKUNTZA HOMEOPATIKOA

ZUBIAURRE 24, 1. ESK.

943 17 30 66



GURE AMETSA

**Gure dantza
Zure dantza**

Gureametsataldea@hotmail.com